

**2012KO OTSAILAREN 16AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaseia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamabi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTAK. 2011ko abenduaren 1eko eta 2012ko urtarrilaren 26ko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- AURREKONTUA. 2012. urterako aurrekontu orokorra onartzea.

Alkatea jaunak (BILDU): “Lehenik herritarrekin bilera batzuk egin genituen eta ekarpenak jaso. Parte hartzea ez da izan guk nahi adinakoa, baina hurrengo urteetarako hobetzen saiatuko gara. Alderdi politikoekin ere ronda dezente egin ditugu eta beraiei eskertzen diet izan duten jarrera. Hala ere guk uste dugu bukaerako emendakin asko sortu direla, baina hurrengo urteetarako hori hobetzen saiatuko gara. Alderdi ezberdinek proposaturiko %80 proposamen inguru onartu dira.

Ekonomi egoera

Udalaren ogasunaren egoera ekonomikoa ona dela esan daiteke ekonomi egoera orokorra kontutan hartuz, hain zuzen ere, Udalaren aurrekontu propioan, diru-sarrera arruntek gastu arruntak eta maileguen amortizazio gastuak gainditzen dituzte 1.387.044,81 euroko diferentziarekin eta era horretan, soberakin hori inbertsio gastuak finantzatzeko erabil daiteke, eta kreditu eragiketaren beharra saihestu da.

Horrela 1.475.714,81 euroko inbertsioak jasotzen dituen aurrekontua osatu ahal izan da, Foru Aldundiak Udal Finantzaketarako Fondorako egindako aurreikuspena jasotzeko garaian zuhertasunez jokatzuz, eta aurreikuspen hori %8,6ean gutxitu izan arren.

Organismo Autonomoen ekonomi egoerari dagokionez, zerbitzu horiek sortzen dituzten baliabide ekonomikoak ez dira gastuei aurre egiteko iristen eta horregatik, Udalaren Aurrekontutik jasotako fondoan transferentzia bidez osatzen da beharra.

Finantza egoera

Eskura dauden baliabideen zerga-bilketaren zalutasun eta aldizkakotasunak, gastuak puntualki ordaintzeko aukera emango dutenaren aurreikuspena egiten da; hori dela eta, urtean zehar Diruzaintzan arazo nabarmenik ez izatea espero da. Hala ere, 2009 eta 2011ko Foru Fondoaren itzulketak sortuko duen baliabideen gutxipenak eragin handia izango du Udalaren altxortegian eta horrek eskatuko du diruzaintzako planak osatu eta horien jarraipen zehatza egitea.

Ondare egoera

Aurtengo aurrekontuan, Ondare ondasunei dagokienez, 100.000,00 euroko kreditua aurreikusten da Igartzako Ondare Ondasunetan eta ez da Lurzoruaren erosketarik aurreikusten, 2011ko aurrekontuan gauzatu ez zena eta gerakinetan geratuko den 100.000,00 euroko kopurua, 2012ko aurrekontuan txertatzea aurreikusten baita.

Aurrekontua egiteko kontuan izandako irizpideak

a) Batzorde bakoitzak egin du bere aurrekontuaren proposamena.

b) Pertsonal gastuetan, aurrekontua mantentzeko irizpidearekin jokatu da.

c) 2. Kapituluaren, hau da, gastu arrunta %2,36 igo da (K.P.I.: 2,4) .

d) 3. Kapituluaren kalkulua ondorengo irizpideen arabera egin da:

Maileguen interesak aurreikusteko %2,30eko euriborra (gehi %0,2ko diferentziala) formalizatutako maileguetan eta %4ko diferentziala 1.900.000,00 izan litekeen mailegu berriaren aurreikuspenean eta ondorioz kapitulu hau 46.000,00 eurotan jaitsi da.

e) Transferentzia arrunten kapituluak 21.000,00 euroko jaitsiera izan du, Jaitsi diren gastuen artean aipagarrienak dira Gizarte larrialdietarako gastuarena (Jaurlaritzaren ekarpena gutxitu delako) eta Musika Eskolako ekarpenarena (langile baten ezintasun iraunkor osoaren ondorioz), eta igo direnen artean berriz, herriko erakundeekin sinatzen diren hitzarmenetarako aurreikuspena %2,4 igo da, eta Sasieta Mankomunitatearen eta Udal Euskaltegiaren ekarpenak ere igo dira.

e) 6. Kapituluaren aurreikusi dira oso beharrekoak diren inbertsioak eta ondoren aipatuko dira.

f) 9. Kapituluaren erakunde finantzarioak emandako maileguen amortizazioa aurreikusteaz gain, 2009ko Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazio negatiboaren ondorioz Foru Aldundiari hiru urtetan itzuli beharreko kopurutik, hau da, 1.787.014,02 €, 2012 ekitaldiari dagokion 595.672,00 euroko ordainketarako kreditua aurreikusten da.

Aurrekontuaren helburuak

2012ko ekitaldiko Aurrekontuaren bitartez, Udalaren ekonomi jardueraren programa gisa, baliabideei ahalik eta etekin gehiena atera nahi zaie, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta zainduz.

Helburu orokor horren barruan baliabide arruntak inbertsiorako erabili nahi dira azpiegitura hobetzeko eta osatzeko eta administratuen ongizatea hobetzeko. Asmo horrek ez du ekarriko zerbitzu emateen maila gutxitu beharra, ez eta administratuek diru-ekarpen gehiago egin behar izatea ere, hain zuzen ere, 2012 ekitaldirako Udalak ez du igoerarik egin herritarrek ordaindu beharreko zerga eta tasetan.

Aurrekontuaren edukia

Ondoren zehazten dira gastu eta sarrera aipagarrienak:

GASTUAK:

. Gastu arruntetan :

. Ondare eta Hazienda:

Maileguen interesa: % 3,6ko jaitsiera. Aurreikusitako interesen tipoaren arabera (% 2, 30).

Korporatiboak taldeko organoetara joateagatiko asistentziak: %18ko jaitsiera.

. Gizarte Ongizate saila:

Gastu maila, esate baterako, mantendu egiten da, nahiz eta gizarte larrialdietarako aurreikuspena jaitsi, beste hainbat gastuena igo egin delako, hala nola, Familia-bitartekaritza, Eguneko Zentroaren kudeaketa, Kale heziketa programa eta hainbat inbertsio ere aurreikusi direlako.

. Euskara saila:

Aldaketa aipagarriena Euskaltegiari egin beharreko ekarpenarena da, handitu egiten baita, HABEk bere ekarpena jaitsi egin duenez.

. Kultura:

Saileko gastu maila mantendu egin da eta %2,4 igo hitzarmenen kasuan, nahiz eta arloko gastu aurreikuspena guztira jaitsi egin den, Musika Eskolari egin beharreko ekarpena gutxitu egiten delako, Jaurlaritzak bere ekarpena %2,8 igo duenez eta pertsonalaren kapitulua ere gutxitu egin delako langile batek ezintasun iraunkor osoa jaso izanaren ondorioz.

. Parte hartzea, berdintasuna, migrazioa eta Hezkuntza:

Lehen hezkuntza batzordearen betebeharrak zabaldu egin dira, hainbat ikastetxeen ekarpena handitu da aldizkariaren kudeaketa batzorde honetara pasatu da, ondorioz aurrekontuak %14ko igoera izan du.

. Hirigintza:

Batzorde honetako aurrekontua jaitsi da, inbertsio gastuak jaitsi direnez.

. Gazteria:

Gastu maila mantendu da eta saileko dirulaguntzak %2,4 igo dira.

. Antolakuntza:

Aurrekontua %15,6 igo da Udaltzaingoko pertsonal gehikuntza aurreikuspenaren eta garabia erosteko inbertsioaren ondorioz.

. Landa ingurunea:

Inbertsioen aldetik dator gastuaren gehikuntza. (5.503,00 euro).

. Zerbitzuak:

Sail honetan gastu aurreikuspena %5 jaitsi da, inbertsio gutxiago aurreikusi direnez.

. Sasieta Mankomunitaterako ekarpena: %8 igo da.

.Kale garbiketako eta parke eta lorategien mantenimendurako kontratuen prezioak igoerarik mantentzea lortu da.

. Ingurugiroa:

15.000,00 euroko gastu berria aurreikusi da, ingurumen ekintzak garatzeko zerbitzuaren kontrataziorako.

. Igartza:

Igartza monumentu multzoaren mantentze gastuak igo eta inbertsio gastuak jaitsi dira, birgaitze lanak bukatzen ari direnez.

. Turismo eta merkataritza:

Batzorde berria da eta jarduera berriak aurreikusteaz gain, bere gain hartu ditu orain arte beste sail batzuetan aurreikusten ziren hainbat gastu, hala nola: gabonetako argiak eta Bareak, Aurtzaka-Igartzako dantzarien kofradia eta Odolkiaren kofradiari dirulaguntzak.

. Inbertsioetan :

Lehen aipatu bezala, bakarrik oso beharrezkoak ikusten diren inbertsioak aurreikusten dira, eta ohikoak direnez gain ondorengoak dira aipagarrienak:

. Igartza: 100.000,00 €

. Arana parkea: 50.000,00 €

. Lurzoruaren erosketak: 100.000,00 €

. Arana kalea: 156.525,00 €

. Karreratarren kalea: 100.000,00 €

. Inbertsioak ikastetxeetan: 296.286,00 €

- . Irisgarritasunerako azterketa eta proiektuak: 30.000,00
- . Igartza Oletako parkinga: 20.000,00 €
- . Baserrietako ur sarea: 50.000,00 €
- . Baserri bideetako eskoilerak: 36.000,00 €
- . Baratze sozialak: 30.000,00 €
- . Garabia: 63.000,00 €
- . San Martin plaza azpiko zorua garbitu eta tratatzea: 18.000,00 €

SARRERAK

2012 urterako ez da igoerarik izan udal zerga eta tasetan eta horren ondorioz, sarreren aurreikuspena egiterakoan, bakarrik 2011ko aurrekontuaren likidazioaren estimazioa hartzen da kontutan. Horren arabera, ondorengo sarrera egoera osatu da:

. Zerga eta Tasak:

2011ko likidazioan onartutako eskubideak hartu dira oinarri lehenengo kapituluko zergetan eta tasetan eta Eraikuntza zergari dagokionez, ohiko lizentziengatik dirusarrerak aurreikusteaz gain Hirigintza sailean tramitatzen ari diren espediente zehatzetatik ondorioztatuko diren sarreren aurreikuspena gehitu da.

. Transferentzia arruntak:

. Transferentzia arrunten kapitulua %8,5 jaisten da, gehien bat, egin den Foru Fondoaren aurreikuspena % 7,4 txikiagoa delako (2011koarekiko) eta gizarte larrialdietarako sarreren aurreikuspena %60 inguru jaitsi delako.

. Ondare sarrerak:

2011ko likidazioan onartutako eskubideak oinarri hartuta, gordailuen interesen aurreikuspena handitu da.

. Inbertsio errealeen besterentzea eta hirigintzako jarduerengatik sarrerak:

2011 urtean 580.000,00 euro aurreikusten ziren kapitulu honetan, baina 2012rako ez da aurreikusten sarrerarik izango denik kontzeptu horiengatik.

. Kapital transferentziak:

Ikastetxeetako inbertsioetarako Hezkuntza Sailaren dirulaguntzarena da kopuru aipagarriena (165.000,00 euro).

AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUDIA

Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudiari dagokionean, aldaketa bakarra dago aurreko urtearekiko, hala nola, urtearen amaieran gehienez izan

ahalko den zorpetze mailaren muga handitu egin dela, urtearen hasierako saldo biziari gehitu zaiolako Udalak Beasain Lantzen, S.A.ri kreditu eragiketa bat formalizatu ahal izateko emandako abalaren kopurua, hau da 1.900.000,00 euro. Konpromezu horri aurre egin ahal izateko kreditu eragiketa bat formalizatu beharra izatearen aurreikuspenean.

2012 urterako Aurrekontu Orokorra 17.759.487,23 €koa da eta ondorengoek osatzen dute:

- Udalaren aurrekontu propioa: 13.534.482,87 €
- Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontua: 3.642.064,00 €
- Fundazioa: Udal Kirolaren Erakundeko aurrekontua: 493.957,94 €
- Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua: 594.923,94 €
- Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua: 383.754,37 €
- Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua

Gure proposamena, onartzea da eta hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko.

Jarraian emendakinak eztabaidatzea eta bozkatzea dagokio, sei EAJkoak eta bi H1ekoak.

Hitz egiteko txanda emanda, Josi Insausti jaunak (H1) berak aurkeztutako emendakinen berri eman du:

1.- VI KAPITULUA

90.601.751.00.01 Igartza eta hotel seinalizazioa 7.500,00

Proposatzen den aldaketa diru kopuru berdinarekin, kontusail horren izena aldatzea da: **Igartza eta Salvatore, Igartza ta Dolarea hoteleen seinalizazioa**

Arrazoiak: dagoen moduan badirudi bakarrik Igartza hotelerako dela seinalizazioa.”

Alkate jaunak adierazi du orain proposatzen den moduan dela nahiz eta izenean bakarrik Igartza aipatu.

Josi Insausti jaunak beste emendakinaren berri eman du, hau da:

2.- IV KAPITULUA

10.419.111.00.02	Udalbide Elkarlan Elkarte	13.500
10.481.111.00.01	Udalbiltza	15.000

Proposatzen dudan aldaketa:

Partidak eta kontzeptuak kendu.

Libre geratzen diren 28.500€kin, ondorengo banaketa egin:

<u>ASMUBE</u>	+ 1.250
<u>BAREAK</u>	+ 1.250
<u>EUSKERA Subentzioak</u>	+ 3.000
<u>KULTURA Hitzarmenak</u>	+ 10.000
<u>KIROLA Hitzarmenak</u>	+ 10.000
<u>GAZTEDIA Hitzarmenak</u>	+ 3.000

Josi Insausti jaunak: “uste dut mesede handirik ez dugula egiten ematen dugun banatze-irudiarekin, Udalbide Elkarlan Elkartearentzat dirulaguntza proposatuz eta beste bat Udalbiltzarentzat. Gure artean ez badugu adostasunik lortzen, adostasun hori defendatu behar den tokian defendatzea zaila izan daiteke. Herriko elkartearen artean diru hori banatzea proposatzen dugu, entitate horiek herriarekiko duten garrantzia ikusita.”

Lehenengo emendakina bozkatu da eta aho batez onartu da.

Bigarren emendakina bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (PSE-EE/PSOE, H1)
Aurkako botoak: 14 (BILDU, EAJ, PP, ARALAR)
Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua txikiagoaenez ez da onartu emendakina.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) hitza hartu du beraien emendakinak aurkezteko:

“1.-ZUZENKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Zergatia: Udalerrian langabetu kopurua %13,57enez (751 pertsona) Udalak enpleguaren alde egiteko honako bi ikastaro trinko proposatzen dira:

1.- III Mailako prestakuntza ikastaroa Lanbide eta Goierriko Eskolarekin batera goi mailako zikloa edo goi mailako ikasketa tekniko duten beasaingar langabetuei zuzenduta. Ikastaroa gaindituz aukera gehiago izango dute lankontratua gauzatzeko. Baldintza hauek betetzen dituzte Beasaingo 90 inguru lan eskatzaileek.

2.- I Mailako ikasaro Sozio-Sanitarioa. Orain arte Foru aldundiak antolatzen zituen ikastaro hau SARBIDEAK programaren bidez, aurten ez ditu antolatzen. Titulazio

gabeko pertsoneri dago zuzenduta ikastaroa eta batipat emakumeei. Beasainen 180 inguru laneskataile daude egoera honetan.

Hau dela eta proposatzen da:

PARTIDA SORTU: 10.227.433.00.01. Enplegurako prestakuntza.

CON UN PRESUPUESTO DE 145.000€

Zerga itaunduetako partidatik dirua hartzea proposatzen da horretarako.

La previsión que se ha hecho del Fondo Foral, en el presupuesto de Beasain es muy conservadora porque se prevé un decremento del 10% sobre lo presupuestado y el martes anterior el Consejo Vasco de Finanzas hizo una previsión de lo aportado de un 4%. Creemos que un 10% es mucho y pensamos que está más que justificado que se haga el ajuste y quedaría en un 8%. Somos conscientes que el tema del empleo no es una competencia municipal, pero al igual que otro montón de temas (centro de día, ayuda a dependientes) el Ayuntamiento lo hace suyo y viendo que hay una necesidad presta el servicio. Los datos de Eudel dicen que los Ayuntamientos tenemos una media de un 30% de competencias que no nos corresponden. Creemos que una tasa del 13,57% de paro requiere de proyectos y de iniciativas, independientemente de quien las lleve a cabo para intentar dar salida a la situación actual.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk emendakin honen aurka azalduko gera, nahiz eta Udalak tokatzen ez zaion hainbat gauza egin, uste dugulako GOIEKItik ere horrelako inizatibak eskualderako hartu daitezkeela. Finantzaketaren aldetik esan, kontserbadoreak izan gaitzkeela baino aurtengo likidazioa guk aurreikusita genuena baino baxuagoa izan behar dela. Dena dela, puntu honetara datorren urtean iritsi ezkerero denok gustura izango gara.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Tendremos el mismo posicionamiento. No discutimos la tremenda necesidad que existe, pero quisiera recordar al enmendante que ellos han gobernado 25 años y si algo siempre se ha cuestionado es asumir competencias que no eran nuestras, y eso en tiempos de bonanza económica. En estos momentos, no es ningún secreto el saber cómo estamos y como están las arcas municipales, pero aún sabiendo y siendo conscientes de esta necesidad, quien tenga la responsabilidad de hacerlo que ponga los medios. Nosotros ya tenemos bastantes problemas como para entrar a hacer lo que no nos compete, aunque sea necesario. Votaremos en contra.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Yo creo que en elecciones se habla fácil de dar soluciones a los problemas que tiene la ciudadanía. El que lo haga GOIEKI significará que un dinero tiene que salir de las arcas de Beasain y tendrá que haber una modificación de créditos. Es verdad que el Ayuntamiento ha tenido que dar respuesta durante otros años a competencias que no eran tuyas ante las necesidades que había. Yo creo que la necesidad es real, como para que

se tomen medidas que no son estructurales, sino puntuales, empiezan y acaban este mismo año y no son dependientes para otros años. Creemos que son excusas y que está justificado que el Ayuntamiento haga inversiones de ese tipo.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 1 (H1)

Aldeko botoen kopurua txikiagoa denez ez da onartu emendakina.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ):

“2.-ZUZENKETA

EZKIAGA AUZOAN KOMUN PUBLIKOA JARTZEA

Azken urteetan herritarren beharrei erantzuteko komun publikoak jartzen izan dira eta aurten ere ikusirik hutsune hori zegoela, iruditzen zaigu Ezkiagako parke publikoan beharra sortzen ari dela erabilera areagotzen ari delako eta horregatik komun publiko berri bat eraikitzeko partida bat sortzeko zuzenketa bat sartzen dugu, 70.000 €ko zuzenketa. Hori finantzatu ahal izateko, azterketa eta proiektuetatik 40.000 € (2011ko remanentetik inkorporatu) hartuko genituzke, laneko gaietan neurri zuzentzailetatik 20.000 € (hemen aurreikusitako bi urteetan egin) eta beste 10.000 € gazteetarako lokalen ekipamendutik.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Ados emendakin honekin, baina finantziarioari dagokionean, azterketa eta proiektuetatik 40.000 € ateratzea ondo, baina gazteetarako lokalen ekipamenduetarako partida ezin da aldatu dirulaguntza baten menpe dagoelako. Guk proposatzen dugu espaloietako partida, 70.000 €tik 50.000 €ra pasatzea eta neurri zuzentzailetatik 10.000 € atera.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Esta enmienda vamos a votar a favor y nos alegra que se haya presentado. Es una demanda del partido socialista de hace catorce años. Siempre se nos ha denegado pero yo creo, igual es una sensación mía, la oposición causa algún trastorno intestinal y vuelve a la gente más sensible hacia estas cosas, con lo cual la apoyaremos, porque después de muchos años se nos va a dar la razón.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Será el cuarto que se pone, no el primero.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da emendakina.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ):

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)
Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)
Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua txikiagoa denez ez da onartu emendakina.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ):

“4.- ZUZENKETA

*ELKARBIZITZAREN ERREKONTZILIAZIO BAKETIK PROGRAMA
INPLMENTATZEA.*

Aurrekontuetan 6.000 €ko kontu-saila sortzea BAKETIK programa bultzatzeko eta bideratzeko. Iruditzen zaigu normalizazio eta bakerako bide honetan garai garrantzitsuak bizitzen ari garela eta atzoko hitzaldia, Jose M^a Setienek emandakoa da horren adibide. Iruditzen zaigu jendea gai hauekin kezkatuta dagoela eta proposamen duguna da eztabaida leku horiek eta foru horiek sustatzea eta horretarako 6.000 €ko horiek parte-hartzeko materialaren partidatik hartzea proposatzen dugu. 30.000 € aurreikusita daude eta bietakoren bat kontu-sail horretan 6.000 €ko kopurua nominalizatu edota beste kontu-sail berri bat sortu, 30.000 €ko kontu-saila 24.000 €ra jaitsiz.”

Alkate jaunak eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan du aurka bozkatuko dutela.

H1eko ordezkariak berriz esan du abstenitu egingo dela.

Unai Baztarrika jaunak (Aralar): “Beti berrestu ditugu bizikidetzaren bideratzeko programak, baina emendakin bidez horrelako zerbait aurrera eramatea, ez zaigu iruditzen are gutxiago inolako batzordeetan proposamenik egin ez delako. Gai hau ondo hartu beharrekoa dela guztion adostasunekin eta benetan sinesten badugu herri honetan berradiskidetzeari bide eman behar zaiola, mahai honen inguruan eserita gauden denon partetik izan beharko lukeela. Horregatik, nahiz eta proposamen eta bide honekin ados egon, abstenitu egingo gara.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, PP)
Aurkako botoak: 8 (BILDU, PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 2 (H1, ARALAR)

Aldeko botoen kopurua txikiagoa denez ez da onartu emendakina.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ):

“5.- ZUZENKETA

LODOSAKO IBAIALDE IKASTOLARI EZ OHIKO EKARPENA EGITEA

Azken lau urteotan Ibaialde Ikastolak 4 milioi €ko diru-laguntzak jaso dituzte EAJk eta Rodriguez Zapatero Estatu-buruak hitzartutakoaren ondorioz, Nafarroako gobernuaren diru-laguntzarik jasotzen ez zutelako. Lodosako ikastola gaur egun oso egoera larrian dago eta proposatzen duguna da Udalbide Elkarlan Elkarterako eta Udalbiltzarako aurreikusitako dirutik, 6.500 €ko ekarpena egitea.”

Alkatea eta H1eko ordezkaria proposamenarekin ados azaldu dira.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1 eta ARALAR)

Aurkako botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 1 (PP)

Aldeko botoen kopurua handiagoa izan denez, emendakina onartu egin da.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ):

“6.- ZUZENKETA

MURUMENDIRA DOAN BIDEA KONPONTZEA

Aortatik Murumendira doan bidean zuhaitzak ateratzen direla eta ura ez da ondo biltzen eta baserri-bideak egokitzeko partidatik 10.000 € horretarako erabiltzea, ez bakarrik ur-bilketarako baizik eta zuhaitzen ateratzea dela eta azken zatian dauden zuloak konpontzeko.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Ese tema hay que debatir en comisión. La partida de la cual proponeis minorar el importe es como consecuencia de un presupuesto cerrado, ya que es para ejecutar una escollera en un camino de acceso a un caserío. Si se minorara la partida esa escollera no podría ejecutarse y habría desprendimientos en el camino, y mermaría la actividad agropecuaria que se desarrolla en ese caserío. Por otro lado, el arreglo del camino de Murumendi hay que acometerlo de otra manera. Se van a seguir sacando árboles en esa zona y lo correcto sería llegar a un acuerdo entre Itsasondo, Ordizia y Beasain. Intentar abarcar 100 hectáreas, para poder acogernos a subvenciones de Diputación. Estamos en contacto con la entidad foral y nos han comentado que podríamos subvencionarnos hasta el 40% del coste de ejecución. Este camino tiene muchos problemas, que no se van a solucionar con 10.000 €. Nuestra propuesta sería la de hacer un camino para que los viandantes puedan circular por el borde de la derecha, que es lo que está más deteriorado, cerrando el resto del espacio para que la naturaleza

siga su curso y asiente el terreno, y para las salidas de agua trazar tuberías y una capa de cantera. Pero todo eso ni con 10.000, ni tampoco con 60.000 se puede llevar a cabo. Nuestra propuesta es tratar este tema en la comisión, que es donde se debería de tratar y hacer un camino que realmente sirva para todas las talas de árboles. Por lo tanto votaremos en contra.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Los 10.000 € es para que el equipo de gobierno solucione el problema existente. Esos 10.000 € no salen porque sí. Es una propuesta de técnicos de Diputación para hacer una recogida de aguas. Entiendo que haya ganas, nunca nos faltan, para intentar solucionar del todo, pero la tala de árboles no va a acabar nunca, Por eso Diputación exige que se pongan avales para dejar el terreno en la situación primitiva. Siendo un terreno de Beasain creemos que los municipios colindantes pondrán problemas para financiar obras de este tipo. La propuesta que en su día trabajamos con Diputación era la mera recogida de aguas, que si teneis intención de hacerlo, nos conformaríamos con que hubiera un compromiso para dar una solución, por lo menos a las salidas de agua, aunque no fuera el echar las capas de todo uno que haga falta.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Estamos encima de este tema y lo vamos a desarrollar. El tiempo también tiene que hacer su trabajo porque está muy deteriorado. La tierra cuando se mueve es muy difícil que vuelva a su situación natural, pero si se quiere hacer algo en condiciones, hay que ejecutarlo en serio, porque de lo contrario siempre van a ser blandones. La solución primera para los caminantes es hacer un camino en condiciones para que la gente pueda ir a Murumendi sin llegar completamente embarrados y darle una solución de manera que el terreno se vaya asentando.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si hay el compromiso de hacerlo retiro la enmienda.”

Alkate jaunak (BILDU): “Aurkeztutako aurrekontua, onartutako bi emendakinak barne gehi kontu-sailaren izen-aldaketa, onartzea proposatzen dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Nuevo gobierno, nuevo presupuesto. Ante la crisis que estamos padeciendo y la reducción de ingresos, este gobierno nos presenta un presupuesto comparando con el anterior con una deducción que me parece muy bien. Sobre el gasto corriente tengo que decir que aumenta aunque no es mucho, pero más me hubiese gustado una reducción del gasto corriente. En inversiones se va a hacer un gasto de 500.000 € menos respecto al anterior. Me alegraría si estas también fueran superiores, sobre todo en temas como el de la cubrición de los parques de Barandiaran y Dolarea.

También hecho en falta la compra de terrenos para la construcción de viviendas protegidas, por ser las que más se demandan. En el capítulo de ingresos nos haría falta un acuerdo con los promotores urbanísticos de las zonas de Errekarte y Olaran para la construcción de viviendas. Sobre la liberación de un concejal de BILDU, me voy a abstener, porque el tema de liberaciones y tope de asignaciones se tenía que haber hecho de otra manera, buscando un consenso de los portavoces tras la celebración de reuniones, y no como se ha hecho con cada portavoz. Por último el partido popular no está de acuerdo con las partidas para tres temas particulares, como son Udalbide Elkarte, Udalbiltza y transporte a familiares de presos. Por eso voy a votar en contra.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Por un lado quisiera comentarle a Julio que he presentado un emienda para la retirada de ambas partidas porque la imagen de división no es positiva. Sorprende que a la enmienda hayas votado en contra y ahora, sin embargo, te sirven de argumento para votar en contra del presupuesto. Pero bueno cada uno es libre de sus actos.

Bilera asko izan ditugu adostasun batera iristeko eta horrek aukera eman du lehendik zeuden blokeoak saihesteko. Denok egin dugun lanarekin, pentsatzen dut zuen aldetik irudi hori bertan behera geldituko zela. Aurrekontuaren muinari begiratuta esan tasak ez igotzeak bere ondorioak izango dituela. Lehengo urtean bezala gaude eta zuen argudioa da biztanle gehiago daudelako kopuru hori mantendu daitekeela. A nosotros nos tocará trabajar en las comisiones para que los proyectos se ejecuten como corresponda. Entre las inversiones me gustaría destacar los proyectos de accesibilidad para Arantzazu eta Mateo Mujika kalea y para Garmendia Otaola y Foru kalea, la reordenación del parque Arana y las escaleras de Artzai-enea. Decir que esperemos que todos andemos con cabeza y evitar andar a cabezazos, pero esto será sobre las actuaciones que el equipo de gobierno tiene que liderar.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Retomando lo que decía H1, ha habido reuniones, yo creo que más que en otras legislaturas. Igual no con los mismos resultados, pero creo que en estas reuniones se ha sido sinceros, pero dos no se ponen de acuerdo si uno no quiere y además una frase que no es mía que dice, que lo mío es mío y lo tuyo a medias, y eso no se puede practicar y votaremos en contra. Voy a explicar por qué. Nos parece un presupuesto plano, de corta-pega. No hay ninguna novedad, salvo una pequeña excepción. Sinceramente esperábamos más dentro de la penuria económica que tenemos, porque siendo de izquierdas esperábamos más en temas de bienestar social. Es un presupuesto de continuidad, aunque puede ser por las circunstancias. Hay cosas que echamos en falta. Se habla de Udalbiltza y es algo que nosotros todos los años decimos lo mismo, que no estamos de acuerdo, que de los impuestos de los ciudadanos se detraigan

unas cantidades para asuntos privados y que nunca sabemos cuál es el destino final de esos dineros, que a los ciudadanos no se les consulta. Así mismo tenemos una partida, la del panfleto de la revista municipal al servicio de la Corporación, como lo fue también antes. Si sumamos esas partidas nos dan 99.300 €. Hay otras partidas importantes, a las que se les pega un mordisco, en urbanismo, en servicios, en bienestar social y son las únicas áreas que son susceptibles de generar empleo. No vemos nada en este presupuesto que pueda generar empleo ni nada innovador. Nos llama la atención que ese dinero que va por ahí no se utilice para terminar de poner las barreras acústicas, que es algo que beneficia a todos los ciudadanos y que en su día la Corporación lo dejó a medias y no sabemos la razón, quizás tendría otros intereses, pero todos pensábamos que se iba a continuar con ello. Así mismo, echamos en falta una partida para adquisición de suelo para vivienda pública. En el anterior presupuesto había una partida de 100.000 € y ahora se ha eliminado. Esto me llama mucho la atención porque un “herri-programa” de 2011 de BILDU, entre otras muchas cosas, hablando de la vivienda decía que anualmente se consignaría en el presupuesto la partida para compra de suelo. Por todo ello, insisto, no nos parece un presupuesto innovador. Es un “corta-pega”. Hay cosas importantes que se han omitido, con lo cual votaremos en contra.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Alfonso, me alegro de lo que has dicho del empleo, pero bueno...el partido socialista está en el Gobierno Vasco y ha suprimido programas como el de AUZOLAN y LANBIDE está como está. Nosotros creemos que desde el Ayuntamiento algo había que hacer porque han desaparecido esas ayudas. Sería interesante que allá también hicieras esas aportaciones e incidieran en el devenir de los municipios. Hala ere, nik ezer baino lehenago udal-gobernari eta EAJren izenean gure eskerra azaldu nahi diogu, aurrekontu-lanketan elkarlana bultzatu dutelako eta aukera izan dugulako gure proposamenak egin ahal izateko. Eskerrak eman baita ere, guri ez zaigulako ondotik pasatzen Alkateak bilera honen hasieran egin duen aipamena, aurrekontuak nola aurkitu dituzuen egoerari buruz eta ikusita nola dagoen ingurua, gor jartzea ekarri zuelako. Beraz, eskerrak gure proposamen batzuk onartu dituzuelako, hala nola, Arana kalea berrurbanizatzea, Jose Miguel Iturriotzetik Joan XXIII.era doan igogailuaren exekuzioa, gaur bertan emendakin bidez onartu dena, komun publikoa Ezkiaga auzoan jartzea, Lodosako ikastolarentzat dirulaguntza eta Murumendira doan bidea. Gastu gordinaren eustea ere helburu bezala hartu duzue eta alde horretatik ere eskerrak ematen dizkizuegu nahiz eta beste emendakin batzuk ez aintzakotzat hartu. Alfonsok komentatu duen bezala, aipatu baita ere, gure harridura hauteskunde aurretik esaten zenarekin eta aurrekontu hauek ematen duenarekin. Gure ustez ere kopia bat dira eta gu behatzarekin seinalatuta sentitzeak, eguna joan eta eguna etorri eskuineko alderdi bat dela esanez eta ezker-ezkerreko alderditik horrelako jarrera ikustea, zer pentsatu ematen digu. ¡Gauzak hain gaizki ez ditugu egin!. Hala ere esan, guri kezkatzen gaituela hainbat aldiz aipatu dudan formazioaren bidez enplegua sustatzeko inolako

programarik ez egotea. Iruditzen zaigu orain dela garaia Udala arriskatzekoa eta bide horretan inbertsio batzuk egiteko. Ongizate batzordetik egoera larrian daudenentzat dirulaguntzarik jaso ezin dutenen jendearentzat ere proposamen zehatzik ez egotea eta adiskidetze-programak ere ez egotea kezkatzen gaitu, pentsatzen dugulako denon helburuak antzekoak izango direla, bide bat egin beharrean gaudelako eta jarrera honekin konpontzen ez delako berradiskidetze hori. Berradiskidetze horrek lana ekarriko du eta horrelako proiektuak ezinbestekoak dira. Hori aurrera begira eta atzera begira, 2011ko aurrekontuetatik 1.500.000 €ko onartutako proiektuak oraindik gauzatzeko daude eta horrek ere kezkatzen gaitu. Aurreko proiektuak blokeatuta daudela esan genezake jarrera horrekin, hirigintza garapenean ere, Beasaingo herri bezalako herri batean urtero mila bat pertsonak eskaera egingo dutelako babes ofizialeko etxeak eduki ahal izateko eta horietatik erdiak edo, beasaindarrak izango dira eta beasaindar jendeak Beasaindik ez aldentzeak garrantzizkoa iruditzen zaigu eta horren ondorioz apustu hori ere egin behar dela diogu. Horretarako, bai Olaran eta bai Errekarte ditugu eta iruditzen zaigu konpromiso falta dagoela, aukera ederra egonda ez bakarrik babes ofizialeko etxebizitzak egiteko baizik eta lana sortzeko ere. Gainera bi eremu horietan promotoreak sartzeko prest daude eta errota hori mantentzeko aitzakia ona izango litzateke. Etxebizitza hutsen kasuan pentsatzen dugu BIZIGUNE programak bultzada bat behar duela, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean eta hor ere konpromiso sendoago bat eskatuko genioke udal gobernuari. Azkenik esan, instituzioetatik diru sarrerak ekartzea aurreikuste-falta dagoela. Dena dela, guk egindako proposamenak baikorrak direlakoan gaude. Hutsuenak ikusten ditugu, baina ez zaigu iruditzen ezetza emateko nahiko arrazoia denik, pentsatzen dugulako gure lana ez dela zuena oztopatzea. Hori dela eta abstenitu egingo gara.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Alderdiekin lauzpabost bilera egin ditugu eta bilera bakoitza bere gora-beherekin. Bilera ezberdinetan esan bezala, gure helburua, 2012. urteko aurrekontuak aurrera ateratzea eta behin horiek onartu eta gero legealdiko planari heltzea izan da. Hemen esandako, inoiz baino gehiago bilera egitearen sentsazio horrekin jarraitzea eta talde eta agente sozial guztiekin kontsentsua bilatzea nahiko genuke. Gure erronka hori izango da, ea udara inguratzen denerako legealdiko plana egiten dugun.

Decir que lo que me ha sorprendido y pienso que también a unos cuantos de los que están aquí, la cuestión del máximo a percibir por asistencias a reuniones de órganos colegiados que ha mencionado Julio, cuando creo que fue él el primero en reclamarlo. Respondiendo a Alfonso decir, que es el que más pegos le ha puesto al presupuesto y en las reuniones celebradas es el que menos ha aportado. No habéis formulado propuestas ni presentado enmiendas.

Aitor Aldasoro jaunari etxebizitzaren inguruan erantzunez esan, Beasainek azkeneko datuen arabera 967 etxebizitza zituen eta guri iruditzen zaigu etxeak eraikitzea baino hutsik dauden etxebizitzak betetzea izan beharko litzatekeela

helburua, beti ere, babes ofizialeko etxebizitzak ahaztu gabe. BIZIGUNEkin konpromiso hori hartuta dugu eta programa horri indar gehiago eman nahian gabilta.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, 2012. urterako aurrekontua osotasunean bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (BILDU, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 6 (EAJ)

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua handiagoa denez, gehiengo soilarekin onartu da 2012. urterako Aurrekontu Bateratua.

3.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA. Beasaingo udalaren eta organismo autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Alkatea jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du: “Udal antolakuntza batzordean tratatutako gaia da eta iaztik honantz dauden aldaketak aipatuko ditut, hau da, Agente plaza sortzea proposatzen da eta Alkatetzan hutsik dagoen administrari plaza, gizarte-ongizatera pasatzea. 2011. urtean zegoen akordioaren arabera, itzultzaile eta kale-garbigeta peoi eta kultura dinamizatzaile lanpostuak amortizatzea ere proposatu da. Horrezaz gain, antolaketa batzordean ere, beharren eta antolaketaren azterketa sailez sail egitea ere proposatu zen, zerbitzu sailarekin hasi eta udaltzaingoarekin jarraituz.

“Musika Eskolaren eta Kiroldegiaren plantila eta lanpostuen zerrendak lehengo urteko berdina dira ”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gu abstenitu egingo gara eta horren arrazoia zera da: gaur egun dagoen murrizketaren ondorioz, ondo ikusten dugu sail batetik bestea aldaketa ematea, are gehiago ongizate aldera behar gehienak hor sortzen ari direlako gizartearen zahartzearekin. Ezinbestekoa da lanpostuak amortizatzea eta berregokitzea, ikusita sektore publikoan Europatik ere zer datorkigun eta horren ondorioz ez zaigu iruditzen agente plaza hori sortu behar denik. Lehen hainbat kontu-sail atzera botatzeko erabili den arrazoia dela medio, hau da estrukturala den lanpostu baten beharra ez dugu ikusten eta hori dela eta abstenitu egingo gara.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1, PP, ARALAR)

Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 6 (EAJ)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da: udalaren, musika eskolaren eta kiroldegiaren plantila eta lanpostuen zerrenda eta beharren eta antolaketaren azterketa sailez sail egitea, zerbitzu sailarekin hasi eta udaltzaingoarekin jarraituz.

4.- DEDIKAZIO ESKLUSIBOA. Dedikazio eskusiboa errekonozitzea, udal antolakuntza batzordeko lehendakariari.

Alkate jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du:

“Gaia: udal antolakuntza batzordeko lehendakariari arduraldi eskusiboa aitortzea.

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzten dituen Legearen 75,2 artikulua arabera, Alkatetza honek Udaltza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

1.- BILDUKo udal talde politikoaren kide den udal antolakuntza batzordeko lehendakari jaunari arduraldi eskusiboa aitortzea. Kargu horren funtzioak betetzeko 2011ko uztailaren 21ean Alkateak emandako ebazpenaren bidez izendatu zen.

2.- Urtero jasoko duen ordainsaria, 35.671,02 €. izango da.”

Jarraian Alkateak adierazi du aipatutakoarekin batera ondorengo ere proposatzen dela: zinegotziei batzordeetara joateagatik ordaindu beharreko gehiena lehen onartuta zegoenarekiko igotzea, 10.000 €koa izanik.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Josi Insausti jaunak (H1): “Nik proposatzen dudana da, dedikazio eskusiboarena bozkatzea eta bestea momentuz mahai gainean uztea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Aurreko legealdian ere Beasaingo Udalak bi liberatu zituen eta iruditzen zaigu Beasaingo bezalako herri batetan beharrezkoa dela politika aldetik liberatuaren lana, baina pentsatzen dugu liberazio lanak lan horri erantzun behar diola eta ez alderantziz, hau da, norbanakoaren beharrari. Ikusi nahi genuke gai hauetaz, honetan aktore ez garenen arteko eztabaida luzeak eman behar direla eta ez zaigu iruditzen tokian tokiko eta unean uneko gobernu batek bere kasa jarri behar dituenik liberatuak. Zerbait erantzun behar dio. Aurreko legegintzaldiarte oker edo zuzen

EUDELEk markatzen zituen gomendioa jarraitzen zen eta konparaketa horiek bai soldatetan, bai egin beharretan eta baita ere liberatuen kopuruetan zerbait zabalagoari erantzun behar diola eta ez momentuan momentuko beharrei. Horretarako alderdien arteko eztabaidak eta lanketak burutu behar dira erabaki ahalik eta justuena hartzeko.”

Alkateari erantzunez Aitor Aldasoro jaunak esan du ontzat ematen duela baita ere, zinegotziei batzordeetara joateagatik ordaindu beharreko gehienezko kopuruaren inguruko proposamena, mahai gainean uztea.

Eztabaidatxo bat izanda, Alkatea, alderdi sozialista eta H1eko ordezkarien artean, azken proposamen hau tratatu eta bozkatzeari buruz.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “El asunto de la ampliación del tope máximo de remuneración por asistencia a reuniones de los concejales, nos parece escandaloso. El día 6 de octubre, después de muchas reuniones en el Pleno se aprueban las asignaciones de los concejales por asistencia a reuniones con un tope de 9.000 € y 6.000 €, según se trate de la Junta de Gobierno Local o de las comisiones informativas, respectivamente. Llevamos todo el pleno hablando de necesidades, de insuficiencia económica, de que no podemos dar más dinero a diversas entidades porque estamos apretados..., mal ejemplo vamos a dar si los concejales nos subimos un 66,66% unos y otros pocos un 11%. A lo mejor hay que explicar a los setecientos parados del municipio, que les pedimos sacrificios y nosotros que les representamos nos aplicamos una subida de un 66%. Me parece intolerable, inmoral y poco ético e incluso sólo el plantearlo.”

Julio Herreros jaunak (PP): “¿Te parece a ti bien que un concejal esté obligado a ir a todas las comisiones y luego no pueda cobrar?”.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Uno se presenta para concejal por un partido y saca un resultado. El Ayuntamiento no es ni Lanbide ni el Inem. Esto no es Donosti, ni Bilbao ni Madrid. Aquí no estamos para solucionar nuestro tema particular. En octubre hay un acuerdo y yo quiero recordar que el equipo de gobierno con su Alcalde a la cabeza quiere hacer bandera de un recorte de gasto y no quieren profesionalizar la política, lo cual me parece muy bien. Es el acuerdo que hay y que no nos satisface o no nos llega, no es problema del Ayuntamiento. Hay lo que hay, y a mi me parece escandaloso con lo que llueve presentar un incremento de un 66%.

Respecto de la liberación si quería manifestar que siendo coherentes, como lo somos en mi partido, que si la anterior Corporación tuvo un liberado, entendemos que el actual tiene el mismo derecho, con lo cual votamos a favor de esta liberación.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Alkateak adierazi du, asignazioena bertan behera geratzen dela eta udal antolakuntza batzordeko lehendakariari arduraldi eskusiboa aitortzea, bozkatu da, ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (EAJ, PP)

Aldeko botoen kopurua handiagoa izan denez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

5.- TARIFAK. Usurbe zinerako tarifak onartzea.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Kultura eta Euskara Batzordeak 2011ko abenduaren 14an egindako bileran, Usurbe Antzokia eta Erakusketa Aretoaren ustiapena kontratatzeke baldintza plegua onartu zuen, ondorengo xedatuz:

- a) Kontratuaren prezioan Udalak esleipendunari, aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren arabera ordainduko dion kopuruaz gain, kontuan hartuko dira ustiapenen ondorioz lortuko diren mozkinak. Mozkin horiek ikuskizun eszeniko, musika eta zine emanaldietako ikusle eta erabiltzaileei kobratutako prezioetatik etorriko dira.
- b) Zine emanaldietako sarrera-prezioak eta beste ikuskizunetakoak Udalak finkatuko ditu.

Aldi berean ere, Udalbatzaren onespenerako aurkeztu ditzan, Hazienda Batzordeari ondorengo prezio proposamena helaraztea erabaki zuen:

USURBE ANTZOKIA

- Zine-sarrera astegunetan, astelehenetik ostegunera:	4,50 €
- Zine-sarrera ostiral, larunbat, igande eta jai egunetan:	
- Helduak	5 €
- Haurrak	3,50 €
- Hilabeteko abonamendua	12 €”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- BAREMOA. Udal kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifetan eta udal tasetan dirulaguntzak ematea.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-Ongizate batzordeak 2011eko abenduaren 21ean egindako bileran, Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenagatiko tarifak eta udal tasen arloan laguntzak emateko ordenantzak direla eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:

.- 2011. urtean ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko eta 2012. urtean Udal kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeko laguntzak emateko kontutan hartuko diren diru-sarreraren baremoa ondorengoa izatea:

Hileko 641,40 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

Hileko 641,41 eurotik 801,75 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.

Hileko 801,76 eurotik 962,10 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.

Diru-sarrerak 2011ekoak izango dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7.- KONTRATUA ALDATZEA. 2012rako kale garbiketa eta bestelako zerbitzuei buruzko kontratua aldatzea.

Alkate jaunak (BILDU), zerbitzu batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du: **“Gaia: Beasaingo kale garbiketa eta bestelako zerbitzuen kontratuaren aldaketa 2012. urterako**

“Beasaingo kale garbiketa eta bestelako zerbitzua” kontratatzeke baldintza ekonomiko-administratiboetako 6. artikuluan prezioen berrikuspena arautzen da, eta horien arabera, hauek urtero eguneratuko dira Estatuko KPIa aplikatuz.

Hala ere, Serbitzu Elkarteak 2011/12/05ean aurkeztutako idatzian proposatzen du; kontratuaren prezioak izoztea 2012. urtean. Eta aldiz 2012rako aurreikusita zeuden ondorengo hobekuntzak murriztea.

- Lan orduak kontrolatzeko Udalak duen sistema aprobetxatzea.
- Pintadak ezabatu eta fatxadak babesteko aurreikusitako gastua %50 murriztea, hasieran 10.000 €-tan aurreikusita zegoena.

- 2013. urterako atzeratzea kaleak ureztatzeko ur zikinak erabili ahal izateko azpiegitura egitea.
- Hiri hondakin solidoak biltzeko edukiontzientzako bi itxitura egin orde, itxitura bakarra egitea.
- 2013an kontratuaren prezioa eguneratzea, kontratuak prezioen berrikuspena egiteko zehazten duen formularen arabera, 2012an ordaindutako prezioan oinarrituz.
- Proposamenak ez du eraginik izango langileen soldatetan. Langileen soldatei indarrean dagoen lan hitzarmenak finkatzen duen KPI+1eko igoera aplikatuko zaie.

Udal Zerbitzu Landa Ingurunea eta Ingurumenaren batzordeak Udaltzako Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo kale garbiketa eta bestelako zerbitzuen kontratuaren aldaketa 2012. urterako Zerbitzu Elkartearen enpresak kontratuaren prezioak izozteko proposamena medio.

Bigarren: Goian aipatutako hobekuntzak murriztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Josi Insausti jaunak (H1): “Gai honekin hainbat buelta eman ditugu zerbitzu batzordean. Proposamena zein zen esan zitzagunean, lehenengo kezka, langileen soldatarena izan zen eta nahi genuena da, enpresaren konpromisoa soldatak mantentzearena nahiz eta kontratuaren prezioak KPI araberako igoera ez izan.

Ante la falta de ingresos que tiene el Ayuntamiento, ya hay una empresa con la que se negocia para que no cobre lo que reza el contrato, aplicando al precio del contrato del 2013 el IPC respecto de lo que haya cobrado en el 2012. Con ello lo quiero decir es que la situación se puede presentar amenazante con respecto al 2013. El 2012 lo podemos salvar, pero la interrogante es qué va ocurrir con los proveedores y trabajadores. Este año parece que está garantizado pero también hay que decir que la empresa deja de hacer algunas mejoras propuestas por la empresa misma. Tiene el aval de la Secretaria en el sentido de que el informe jurídico es favorable, y aunque tenía dudas voy a votar a favor, no si antes expresar mi preocupación respecto a la afección que en los proveedores puede tener la actual situación económica, ya que también en la Junta de Gobierno Local hemos adoptado un acuerdo similar en relación a otro contrato que el Ayuntamiento tiene suscrito con otra empresa.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1, PP, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ)

Botoen kopurua handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

8.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA.

Alkatea jaunak, Euskara eta Kultura batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Beasaingo Euskara Biziberritzeko Planaren 2007-2011 aldirako plan estrategikoa 2012ra luzatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

9.- EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA IZENDATZEA. Euskaltegiko gobernu batzordeak zuzendaria izendatzeari buruz hartutako erabakia berrestea.

Alkate jaunak 2011ko abenduaren 4an, Udal Euskaltegiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren berri eman du, hain zuzen ere, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, M^a Paz Martin Orio andrea Udal Euskaltegiko zuzendaria izendatzearena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

10.- MOZIOAK:

a.- Sektore Publikoari eragiten dien murrizketari buruzko mozioa.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo mozioa irakurri du:

**“BESAINGO UDALARI
SEKTORE PUBLIKOAREN ERREFORMARI BURUZKO
MOZIOA**

Duela egun batzuk espainiar gobernuaren arduradun zenbaiten ahotik, sektore publikoan gauzatuko den politikaren ildo nagusiak entzun genituen.

Horrela, sektore publikoaren erreformara bideratutako neurri zenbaiten artean,

zein baino zein murriztaileagoak, Berrezarpen Tasaren izoztea iragarri zen. Horrek, udalean jubilatuko den funtzionari ororen plazarik ez betetzea inposatu nahi du. Honi Enplegu Publikoaren Eskaintza izoztuta dagoela gehitzen badiogu, ondorioak oso larriak izan daitezke.

Aurrezpen neurri bezala zabaldu denak, lehen golpean ikusi daitezkeenak baino eragin askoz ere garrantzitsuagoak izango ditu. Lehenik eta behin, epe erdira begira eta udal langileak jubilatzen doazen heinean, udalek eman beharreko zerbitzuak emateko adina langile ez dutela izango esan nahi du. Ondorioz, zerbitzuen kalitatearen merma okertze bat eratorriko da udaletara, baita gure honetara ere. Era berean, langile publikoen lan baldintzen okertzea suposatuko du.

Aurretik adierazitakoa bezalako neurrien bigarren ondorio nagusia, zerbitzu publikoak pribatizatu behar direla defendatzen dutenei ateak irekitzea da. Hau da, zerbitzu publikoen liberalizazio osoa defendatzen dutenei mesede egitea. Honen guztiaren ondorio zuzena, urte luzeen ondorioz guztiontzat ziren zerbitzuak, dirua duten gutxi batzuk soilik izatea da. Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, Beasaingo Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du eztabaidatu eta onartu dadin:

1.- Udal honek, Espainiako Gobernuaren presidente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzeko dituen. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtzio publikoan berrezarpenaren debekuz, udal honek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kaltetzen duelako.

2.- Udal honek, geroz eta premiazkoagoa den Ongizate Estatuaren defentsan kontsentsua mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertueneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.

3.- Madrilen onartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, Bilduk, euskal gizarteari dei egiten dio, mobilizatu eta kalitatezko eta herritarrengandik gertueneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Ante la grave situación económica y de destrucción de empleo, el Gobierno de España ahora presidido por el Sr. Rajoy, es quien ha heredado del anterior Gobierno esta situación, que exige medidas drásticas a muchos casos dolorosas, para que desde lo público y lo privado, no se viva por encima de nuestras posibilidades.

Doy mi voto negativo a la moción.”

Alfonso Segade jaunak (8PSE-EE/PSOE): “Estamos de acuerdo con la moción excepto con el tercer punto. En su lugar añadiríamos dos que dicen así:

3.- Hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que se comprometa en la defensa de los servicios públicos y se corresponsabilice de la gestión y uso responsable de los mismos.

4.- *El Ayuntamiento de Beasain se compromete a seguir trabajando en la defensa de los servicios públicos de su competencia, para poder mantener la calidad y cercanía con la que se vienen ofreciendo.*

Aitor Aldasoro jaunak ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“El principio de autonomía municipal implica reconocer que el municipio tiene una dimensión política como poder público de naturaleza territorial. Este principio debe suponer el derecho de los municipios de regular y gestionar, bajo su propia responsabilidad, los asuntos públicos que afecten a sus ciudadanos, contribuyendo desde la proximidad a alcanzar mejores cotas dentro del Estado del Bienestar.

En consecuencia con todo lo anterior, el Pleno Municipal de Beasain muestra su disconformidad con el contenido de determinadas medidas del RDL 20/2011 de 30 de diciembre, por lo que suponen de merma de los principios de capacidad de autoorganización y de autonomía local, en especial en lo referente a las que afectan al ámbito de la función pública, por considerar que limitan de manera unilateral y con carácter general las posibilidades de contratación, sin tener en consideración las diferentes necesidades y circunstancias de cada institución.

Determinadas disposiciones de dicho RDL 20/2012 suponen igualmente, a nuestro modo de ver, un duro golpe contra principios esenciales para la correcta gestión de la Función Pública, al obligar a dejar sin efecto acuerdos alcanzados en el marco de la negociación colectiva.

Sin embargo, el mismo Real Decreto Legislativo deja al margen de las limitaciones a las que hemos hecho referencia a otras instituciones, tales como las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado (art. 3 cinco apartado c) y a las Fuerzas Armadas (art.3 cinco apartado d), constituyendo a nuestro modo de ver una incoherencia difícil de mantener desde la defensa de los valores cívicos y de progreso social que defendemos.

Por todo ello, y preocupados por las consecuencias que se puedan derivar de merma en los servicios públicos de calidad a los que está comprometido este Ayuntamiento, consideramos conveniente:

1.- hacer una firme defensa de los principios de autonomía municipal, por ser el instrumento de gestión imprescindible para gestionar de manera eficaz y racional desde la proximidad, la política local.

2.- hacer un llamamiento a todas las instituciones implicadas a fin de que se adopten las medidas oportunas para que cese la intromisión del legislador estatal en todo aquello que suponga una vulneración de los principios de autonomía municipal y su capacidad de autoorganización.

3.- instar a que el legislador estatal, si considera que así lo requiere la situación económica a la que se enfrenta, aplique las medidas limitativas de dicho RDL a las dos instancias mencionadas en la parte expositiva y que quedan al margen de su

aplicación, mediante la derogación de los apartados c y d del punto cinco del art. 3 en lo que hace referencia a los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado y a las Fuerzas Armadas.

Alkatea jaunak (BILDU): “Nosotros con los cambios que propone el partido socialista estamos de acuerdo y en consecuencia, votaremos a favor de la moción presentada introduciendo esos cambios.”

EAJ alderdiak aurkeztutako aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, H1)

Aurkako botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, PP, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua txikiagoa izanenez ez da onartu.

Jarraian, BILDUK aurkeztutako mozioa bozkatu da, hirugarren puntua kenduta eta horren ondorioz, PSE-EE/PSOeko ordezkariak aurkeztutako 3. eta 4. puntuak sartuta:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua handiagoa denez, onartu egin da BILDUK aurkeztutako mozioa, aipatutako aldaketarekin.

Alkate jaunak (BILDU): komentatu gu ez gaudela EAJk aurkeztutako mozioaren urka, baina guk aurkeztu duguna gure artean landutako zerbait zen.

b.- Garoñako zentral nuklearrari buruzko mozioa.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo mozioaren berri eman du:

“2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Espainiar Estatuko zentralik zaharrena da. 1971. Urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinaturia, epe hori iazko martxoan gainditu zuelarik. Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren frogak dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio. Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko lituzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak. Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera. Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Espainiarreko Gobernuari zentralaren

itxiera behin eta berriz eskatuz. Frogatuta dago Garoñaren ustiapen baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute. Hala ere, azken urteotan Espainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarriz. Halako erabaki bat Espainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoek interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu. Ekonomia ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu. -Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu Beasaingo Udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onartua izan dadin: - Udal honek Espainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala itxi dezaten dei egiten die. - Udal honek Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra geldiaraztea xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du. - Udal honek zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruko lanketa dibulgatzailea indartu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du. Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz. - Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri , Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El cierre de la central nuclear de Santa María de Garoña, en la provincia de Burgos, es un tema que lleva presente ya más de 25 años en nuestra vida, ya sea en política o fuera de ella y sigue suscitando opiniones encontradas.

Esta central cumple una serie de condiciones para seguir funcionando más allá de los 40 años. La central está operativa con informe favorable del Consejo de Seguridad Nacional y contribuye a rebajar los costes de generación eléctrica, sin generar fases de efecto invernadero.

El Partido Popular no ha planteado en ningún momento acabar con la moratoria de la energía nuclear, ni que haya menos reactores nucleares activos en España. Lo que ha dejado el ministro es que debemos aprovechar mejor el conjunto de los recursos energéticos que disponemos.

Nosotros los guipuzcoanos que estamos presentes hoy aquí no decidimos si Garoña sigue abierto o no. Lo decide el Consejo de Seguridad Nuclear. Por ello, me voy a abstener.”

Alfonso Segade (PSE-EE/PSOE): “Votaremos a favor de la moción porque los socialistas hemos apoyado, tanto cuando éramos oposición en Eusakdi, como ahora, en el Gobierno Vasco el cierre de la Central Nuclear de Garoña y defenderemos que se lleven adelante planes sociales y económicos de acompañamiento para los municipios afectados.

El cierre de Garoña ha sido un compromiso claro tanto del gobierno socialista del señor Rofriguez Zapatero, como de Patxi López, de forma que esta Central tenía su plan de cierre, que se materializaría en julio de 2013, habiéndose establecidos por parte del gobierno socialista de España ámbitos de colaboración con el gobierno vasco para analizar propuestas y establecer el desarrollo de medidas de apoyo a la inversión económica, de forma que Alava pudiera recibir 87 millones de euros, además de ayudas económicas a Lantarón y Valdegovía, que paliasen el cierre de la central.

Teniendo en cuenta la situación económica estatal, es importante señalar que para los trabajadores de la central nuclear de Garoña se han previsto los mismos beneficios que se han aplicado en otros procesos de reestructuración industrial, por lo que el País Vasco no puede sentirse marginado respecto a otras Comunidades, ni los trabajadores han sido olvidados.

Ahora bien, mientras los socialistas tenemos muy claro que se hace necesaria una transformación de nuestro modelo energético, y que una de las principales reformas estructurales pendientes en la economía española es la reforma energética, por la insostenible dependencia de los combustibles fósiles, cuya importación supone un porcentaje creciente de nuestro déficit comercial, el Partido Popular parece reticente a cambiar el modelo energético, habiendo expresado su intención de prorrogar la actividad de Garoña hasta el año 2019.

Pero los socialistas estamos convencidos que España está en condiciones de cerrar todas las centrales nucleares al final de su vida útil, en el horizonte del año 2008, alcanzando en 2030 un 70% de electricidad de origen renovable.

En el Parlamento Vasco se ha debatido el cierre de la central de Garoña en varias ocasiones, y los socialistas siempre nos hemos manifestado a favor del mismo, no siendo así la posición de los y las parlamentarias del Partido Popular, que han votado siempre en contra del cierre de dicha Central. Con lo cual estamos a favor del cierre de Garoña.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (EAJ, PP)

Aldeko botoen kopurua handiagoa denez, onartu egin da BILDUK aurkeztutako mozioa.

c.- KUTXABANK Administrazio Kontseilua eratzeari buruzko mozioa.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo mozioaren berri eman du:

“BILDU ETA SOCIALISTAS VASCOS BARTZARKIDE
TESTUAKUTXABANKEN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA OSATZEARI ETA
ERATZEARI BURUZKO EBAZPEN PROPOSAMENERAKO
Adostutako testua:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek bere laguntza eskaintzen diote Kutxabank -Kutxa, BBK eta Vital Kutxaren integrazioaren ondorioz sortutako erakundea- integrazioa adostu zeneko adostasun irizpideak mantentzen diren bitartean, gizarte ekintza mantenduz, ekonomiaren sostengurako elementu garrantzitsua dela eta, Herri honen interes ekonomikoen defentsarako eta bertako herritarren ongizaterako garrantzizkoa dela uste dugulako.

2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek bere desadostasuna agertzen dute Kutxabanken

Administrazio Kontseiluaren osaketa eta eraketarekin, bi indar politikoen alderdi- intereseko irizpideetan oinarritu baitira, eta honen ondorioz Administrazio Kontseilua bi indar horien erabateko kontrolaren menpe geratzen baita, aldi berean euskal gizartearen eta erakundearen ordezkari pluralaren parte-hartzea alde batera utziz.

Era berean, lehen aipatutako Administrazio Kontseiluaren kontrako posizioa azaltzen dute, bere izendapena elkartu diren finantza-erakundeetako bakoitzaren egiazko pisua kontuan izan gabe egin delako, eta aldi berean Euskal Herriko erakundearen eta gizartearen ordezkariaren errealitate plurala islatzen ez duelako.

3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzen dute Kutxabanken egungo kudeatzaileek Kutxa erakunde fundatzaileak adostutako ordezkari errespetatzeko, elkartutako hiru Kutxek bakoitzak bere Batzarrean onartutako integrazio Kontratuan adostutakoarekin bat etorriz. Eta ondorioz, Administrazio Kontseiluan parte hartzen duten pertsona kopurua gutxitzeko erabakia berriz aztertzeko eta baliogabetzeko, Kutxa erakunde fundatzailearen interesak, eta bide batez Gipuzkoako herritarrenak kaltetuak izan ez daitezen.

4. Gipuzkoako Batzar Nagusiek beharrezkoa ikusten dute Kutxak ordenatzeko euskal araudi bat izatea, eta hori erakundeetan hautatutako ordezkari guztiekin negoziatu eta adostu beharko da, eta bereziki Kutxak fundatu zituzten erakundeak ordezkari dituztenekin. Eta era berean, Herri honen erakundearen eta gizartearen pluralitatea bermatzeko errespetu irizpideak errespetatzea, zuzen Gobernatzeko

arauei men eginez, zuzendaritza organoak osatzen dituzten pertsonen kudeaketarako profesionaltasun eta bikaintasun irizpideak errespetatuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El partido popular defiende la legalidad y la legitimidad del Consejo de KUTXABANK, porque ha sido nombrado como dicta la ley y porque los consejos están constituidos tal y como lo estaban en el momento de contrato de integración, cuando nadie los deslegitimó. El Partido Popular Vasco, garantiza un apoyo a la nueva Ley de Cajas, promovida por el Gobierno Vasco, y pondrá todos los medios para que la nueva norma entre en vigor antes del mes de marzo, de modo que la renovación de las asambleas del BBK, VITAL y KUTXA se produzcan bajo los criterios de la nueva regulación. La reestructuración del sistema financiero constituye a día de hoy una realidad aún incompleta, que deberá culminar en los próximos meses con un nuevo proceso de integración al que KUTXABANK no podrá ser ajeno. Voto en contra de la moción.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“Euskadiko hiru Kutxek Kutxa Banken Administrazio Kontseilua 15 kiderekin osatzea erabaki zuten aurreko abenduaren 30ean. Onartutako arauak betez, Kutxa Bank abiaraztea zen egin beharrekoa, haren zuzendaritza eta erabakiak hartu beharko zituen kontseilua ahalik eta adostasunik zabalenez izendatzea izan zen xedea. Eta oinarria sendo kontserbatzeko asmoaz hastea, alegia, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko Bankuen artean, kaudimen eta efizientzia mailarik gorenetakoa mantentzea.

Azken urte hauetan, finantza arloan aldaketa sakonak gertatu dira eta gertatzen ari dira. Merkatu maioristetan dirua lortzeko gero eta arazo gehiago izaten ari da. Kutxek, kutxa izateagatik, errekurtsio propioak handitzeko arazoak dituzte. Negozio arruntean margenak gero eta txikiagoak dira eta beraz, zenbat eta margen eskasagoa orduan eta errentagarritasun urriagoa. Aldiz, gero eta zorrotzagoak dira kutxek bete beharreko arauak, eta bai Europar Batasunetik datozen irizpideak bai Espainiako Bankuarenak norabide bera ezartzen diete kutxei: beren finantza-jarduera bankuen eruedetan oinarritu arazten zaie.

Bestetik, gure erakundeen aspaldiko borondatea izan da Kutxak batzea, Gizarte Lana bermatu eta indartzeko, eta gure garapen ekonomiko eta sozialarentzat lagungarriagoa izateko.

Horrela, nahiz eta beste bi aldietan huts egin zuen Kutxen bategiteak alderdi politikoek alderdikieriaz jokatu zutelako, Kutxen batzarretako taldeen gehiengo zabal eta nabarmenez atera zen aurrera bategitea aurreko 2012ko Irailean.

Erabakitakoa betez, 2012ko urtarrilaren 1ean martxan jarri beharra zegoen Kutxa Bank bere Administrazio Kontseilua izendatuz eta izendapena, Kutxa Banken gehiengo zabal horrek erabakitako arauen arabera egin zen. Hala eta guztiz ere, Kutxa Bankek etorkizun laburrean hartu behar dituen erabakiak kontutan izanik eta erakunde berria

indartzeko, komeni da Kutxak osatzen dituzten taldeen alderdikeriak alde batera utzi eta elkarrizketei berrekitea.

Guzti hori kontutan izanik, udalbatza honek hurrengo hau erabaki dezan proposatzen dugu:

1. Beasaingo udalak bat egiten du Kutxa Banken Administrazio Kontseiluaren izendapenarekin, Kutxa Bank egitasmoa gauzatzeko ezinbesteko tresna delarik.

2. Beasaingo udalak Kutxa Banken Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen profesionaltasuna azpimarratu nahi du bereziki, profesionaltasun hori izango baita, orain arte bezala, Kutxa Banken kaudimen- eta errentagarritasun-maila bermatuko dituena.

3. Beasaingo udalak Kutxa Banken Administrazio Kontseilutik kanpo kokatu diren taldeei dei egiten die, alderdikeriak baztertu eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialerako berebiziko garrantzia duen egitasmora bil daitezen.”

EAJ alderdiak aurkeztutako aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, PP)
Aurkako botoak: 8 (BILDU, PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 2 (H1, ARALAR)

Aldeko botoen kopurua txikiagoa izan denez ez da onartu.

Jarraian, BILDUK eta PSE-EE/PSOEK aurkeztutako mozioa bozkatu da:

Aldeko botoak: 8 (BILDU, PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 7 (EAJ, PP)
Abstentzioak: 2 (H1, ARALAR)

Aldeko botoen kopurua handiagoa denez, onartu egin da BILDUK PSE-EE/PSOEK aurkeztutako mozioa.

d.- EAJk aurkeztutako mozioa, hirigintza aholkularitzaren kontratazioari buruz.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), ondorengo mozioaren berri eman du:

“Urtarrilean, Udalean Hirigintza Aholkularitza eskaintzen zuen enpresari kontratua bukatu zitzaion. Kontratazio berria egitea zegokion beraz Udalari.

Horretarako, Hirigintza batzordean, deialdi publiko baten bidez, aholkularitza hori beste lau urtetarako egitea onartu zen.

Alkateak, bere eskumena erabiliaz, baina Hirigintza Batzordearen iritzia aintzakotzat hartu gabe, kontratazio mugatua egiteko bidea hartu zuen eta ezker abertzalearen inguruko hiru arkitekto taldeei gonbitea egin zien, beraien arteko hautaketa egiteko asmoz.

Beasainen, herrikoak diren Kolegiatutako 25 arkitekto badira eta beraien atxikimendu politikoz gain, bere herriko Udalak lanerako egiten dituen eskaintza publikoetan partehartzeko eskubidea, oinarrizko partehartzearen eskubidea delakoan gaude.

Alkateak bere kasa hartutako erabakiak, atek itxi dizkie Beasaingo arkitektoei lehiaketa horretan parte hartu ahal izateko.

Hau horrela, Beasaingo EAJ-PNV, PSE, H1! eta PP udal taldeek bere ezetza ematen die eta kezka azaltzen gure Alkatearen jokabideari.

1.- Hirigintza batzordearen proposamena baztertzearatik, batik bat bere Udal Gobernu taldeak, bere ekimenetan, partaidetza zabala lehenesten duenean.

2.- Herritar orori, eta Beasaingo arkitektoei zehazki, hirigintza aholkularitza deialdian parte hartzea eragoztearatik.

3.- Beasaindarrok ordaintzen ditugun zerbitzuei kutsu politikoa ematearatik, zerbitzu horien neutralitatea zalantzan jarriaz.”

Alkate jaunak (BILDU): “HIRIGINTZA AHOLKULARITZAZ ETA ARKITEKTOAREN PLAZA

Hirigintza arloak Beasainen izan duen garrantziaz jabetzen gara, eta horretan PNV alderdiak izan dituen interesez ere aspalditik ohartuak ginen. Ez dira gutxi izan azken hamarkadan Herrian egin diren ekimen urbanistikoak eta denak kontutan hartuta bi gauza nabarmendu nahi ditugu.

Batetik Beasainen etorkizuna baldintzatuko duen lur zoruaren erabateko okupazioa aipatuko genuke, Herriaren antolakuntza eta garapenerako aukerak ezerezean utziz. Une honetan Beasainen zerbait egitekotan, dagoena eraitsiz hasi behar da, kostuak izugarri handituz.

Bigarrenik esango dugu Herriaren plangintza, eraikuntza enpresen esku geratu zela PNVri esker, inizatiba pribatuaren menpe eta beti ere beraien interes ekonomikoa lehenetsiz. Horrela eraiki dira ehunka etxebizitza, milatik gora hutsi egon arren, porlanaren urrezko garaian batzuen negozio gose asezinari bazka emanez.

Hori izan da PNVk bultzatu duen politika eta horren zerbitzura jarritako hirigintza aholkularitza izan da aurrekoa.

Orain PNVk aurkeztu eta gainontzeko alderdiek koroa egiten dioten mozioan, kontratatu den aholkularitzaren filiazio politikoaz jartzen da arreta, gai horietaz hainbeste jakinda, orain arte egon den Toledo Talde Donostiarrarena eta bertan egon den arkitektoarena zein den argituko diguzue? Eta Herri honetan lanak egiteko kontratatzen diren eraikuntza enpresena? Eta Beasain Lantzenen mailegua abalatzeko banku zerbitzuaren zuzendariarena?

Herriko lanagatik kontratatzen diren arkitektoak, zergatik izendatzen dira zuzenean? PNVko militante ezagunak tartean daudela badakizue?

Kontratazioak egiteko moduz hainbeste gordetzeko duen PNV nola ausartzen da legez egindako prozedura bat susmopean jartzea? Susmoak egotekotan, zuen esku egon den Aholkularitza Juridikoan edo agian zuzenean zuengan dago. Nola azaldu bestela hartzaindegia zabaltzeko lanaetan 452.343€ gastatu eta deialdia egin beharrean enpresa desberdinei zuzenean kontratatzea?

Hartzaindegiaren zabaltzeko lokalaren erosketa 252.425€gatik egin zen eta Entitate Lokalen Ondasunen Errege Dekretuaren aurka, inongo tasaziorik gabe egin zen.

Igartzako Jauregiaren egituraren azterketa prozedura negoziatu bitartez adjudikatu zen 27.596€gatik. Proiektuak egiteko eta obra zuzendaritzarako zuzenean kontratatu zen, 2008an 35.913€ erabiliz eta 2009an 83.205€. Gogoratu prozedura negoziatuan gehienez 60.000€ arte eta urte betez kontratatu daitekeela.

Beasain Lantzen kudeatzeko aholkularitza Jauregi Alkateak izendatutakoa izan zen eta 2002tik bere zerbitzuengatik egindako lanen %6a eraman du guztira 1.595.823€. Jakina da zerbitzu bera egiteagatik %1a kobratuko luketen enpresak badaudela.

Igerileku estaliaren eta Kiroldegiaren sarrera berriaren lanak, 5,5milioi eta 917.975€tan esleitu ziren, lanak 9,7 milioi eta 1,4 milioi € arte igo zirelarik, %77 eta %54 gehiago, eta guzti hori behar bezala justifikatu gabe eta kontratu prozedura erabat desitxuraturik. Obra honen zuzendaritzan Madrilgo Arkitekto bat egon zen, 906.408€ eraman zituen eta Udaleko aholkularitza non egon zen?

Horrela luze jarrai genezake Hirigintza arloan eta baita beste batzuetan PNVk egin dituen kontratazio, ez solik susmagarriak, baizik eta ilegalak aipatzen.

Guzti honekin zera frogatu nahi izan dugu, batetik Beasainen dauden beharrak estaltzeko Arkitekto independentearen premia badagoela, lehiaketa publiko bidez hautatuko den kualifikatuena nahi dugu, aurreko Gobernuak eta bere Aholkularitzak egin dituen txapuzetatik benetan zerbitzu profesional eta independentera pasatuz. Gainera gure ustez, Udal Arkitektoa izateak, aholkularitza pribatuak prozeduretan parte izateko tentaldiak ekiditea bermatuko luke, susmo guztiak uxatuz. Gogoratu behar dugu, aurreko arkitekto taldeak aholkularitzaz aparte, herriko lanak ere eramaten zituen. 2010an, aholkularitzagatik 38.389€ kobratu zituen eta zuzenean esleitutako herriko lanengatik, 98.840€. Ezin daiteke aholkulari eta obretan parte izatea.

Horregatik eman diogu ezetza lau urteetarako esleipenari, gure ustez legealdi honetan Arkitektoa plantilan izatera pasatzea lehentasuna delako. Beste hainbat zerbitzuetan azken orduan kontratua luzatuta Udal Gobernu honen aukera mugatzea izan bada ere, honekin beste hainbeste egitea ekidin dugu. Herri interesak aurretik jarrita jokatu dugunaren lasaitasunean azalpen guztiak emateko prest gaude.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Herriaren alde lana eginaren lasaitasuna guk ere badugu. Denak ez dira interesak. Aipatu dituzu hainbat gaietan, esan Kiroldegiaren kontu-saila bikoiztu egin dela, aurreikusita zegoena baino obra gehiago egin delako eta obra hori Euskal Herrian gelditzeagatik egin zela. Legez kanpo egin diren gauzak salatu dituzu, baina gonbidatzen zaitut legez kanpoko horiek salatzea salatu behar diren tokian, ez mozio baten bidez. Erraza da esatea legez kanpokoak izan direla. Jarri salaketak.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Parece que por parte del gobierno actual está habiendo unas críticas al funcionamiento del anterior gobierno. Es posible que el PNV, haya hecho cosas mal, pero si esa es la crítica, ¿no cometes los mismos errores!”.

Alkate jaunak (BILDU): “Nosotros legalmente no creemos que hayamos hecho nada malo. El objetivo será que en el 2013, haya un arquitecto municipal y por eso se ha hecho ahora un contrato de un año.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Se reconoce que ilegalidad no, pero entonces no entiendo la razón de llevar ese tema a la comisión de urbanismo. En esa comisión se acuerda lo que se acuerda. Lo más triste es que nos enteramos en la calle y por llamadas que vamos teniendo qué es lo que se estaba produciendo en el Ayuntamiento. Si en ese caso, el Alcalde dentro de sus competencias dice que va a ejecutar lo que va a ejecutar, por lo menos se nos llame, y no nos tengamos que enterar vía telefónica o por conocidos. Antes también lo he dicho mejor actuar con cabeza que a cabezazos. Por ello la pregunta que hago es si tenemos el riesgo de que lo que ha pasado en urbanismo, pueda también ocurrir en otras comisiones, cuando alguna de las propuestas que pueda presentar el equipo de gobierno, no salgan adelante, porque entonces el descrédito de las propias comisiones sería importante. Bueno sería, saber si lo que se ha hecho en urbanismo puede hacerse también en otras comisiones, porque si eso es así tendremos que pensar si lo que se decide en las mismas vale para algo.”

Alkate jaunak (BILDU): “Creo que ha sido el único caso en el que se ha actuado de manera distinta a la propuesta en comisión. Este debate ya tuvimos hace una semana. Nuestro objetivo es que el año que viene haya un arquitecto municipal, pero este año no hemos tenido el tiempo suficiente para trabajar este tema con los demás partidos.”

Mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE; H1, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua handiagoa denez, onartu eginda mozioa.

11.- ALKATEAREN EBAZPENAK. Alkateak, 2011ko urriaren 28tik, 2012ko otsailaren 13ra emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2011ko urriaren 28tik, 2012ko otsailaren 13ra Alkateak emandako Ebazpenak.

12.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

PARTE HARTZEKO TXOSTENA.

Josi Insausti jaunak (H1): “Parte-hartze prozesuko txostena prentsari aurkeztu diozue eta gogoratzen dizuet zinegotziei bidaltzeko konpromisoa hartu zenuten. Guk ez daukagu.”

Zezipia Herrador andreak (BILDU): “Bihar bidaliko zaizue. Batzordeka daude konklusioak jasota.”

HAURTZAINDEGIA

Malu Vallés andreak (EAJ): “Es una pregunta para Zezipia como representante del Ayuntamiento de Beasain en el Consorcio de Haurreskolas. El pasado día 9, para el que se había convocado una huelga de los servicios públicos, en la guardería infantil de Beasain, que aproximadamente tiene unos 140 niños, cuando habitualmente hay una situación de paro se quedan dos trabajadoras al cuidado de los niños, pero en esta ocasión sólo se quedó una al cuidado de los posibles 140 niños. Evidentemente no acudieron los 140, porque los padres cuando recibieron la comunicación de que había huelga, muy pocos enviaron a los niños. Lo que quiero saber es por qué se quedó una sólo persona.”

Zezipia Herrador andreak (BILDU): “Totalmente de acuerdo. No tenía constancia de ello. Mañana me informaré, pero no se nos había comunicado.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Como concejal y como madre, lo que pido es que no se quede sólo una porque si a esa persona le pasara algo, los menores quedarían desatendidos.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko hamarrak eta hogeit gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.